

Aiala Olarte > Zuzenbideko lizentziaduna

Espetxe zigorraren ordez, gizartearen aldeko lanak ezartzen dituzte gero eta epai gehiagok, baina ez dago aplikaziorako baliabiderik.

«Zigor sistemaren azken aukera izan behar du espetxeak»

Maite Asensio

Kartzelari eta gizarte bazterketa-ri buruzko jardunaldiak egiten ari dira egunotan Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, Arrats elkarteak antolatuta. Espetxe zigorraren ordez gizartearen aldeko lanak zein egoeratan ezar daitezkeen eztabaidatu zuten atzo; abagune horretan eman du Aiala Olarte EHUko zuzenbideko lizentziadunak bere ikerketa lanaren berri: *Kartzelaren alternatibak Euskadin: gizartearen aldeko lanak.*

Gizartearen aldeko lanak espetxe zigorraren alternatiba izan daitezkeen aztertu duzu. Zein ondorioa iritsi zara?

Ondorio nagusia da posible izango litzatekeela gizartearen aldeko lanak espetxe zigorraren ordezkoa izatea. Baina, horretarako, arau batzuk aldatu beharko lirateke eta administrazioek eta organo judizialek alternatiba horren aldeko apustu sendoa egin beharko lukete, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak jarritz.

Zein onura ditu sistema horrek?

Lehenik eta behin, ez du pertsonaren askatasuna mugatzen.

Ikerketa egitean, ildo nagusi bat hartu nuen: espetxeak zigor sistemaren azken aukera izan behar du, eta horretara heldu baino lehen, beste zigor mota batzuk egon behar dute, pertsonaren askatasuna horrenbeste mugatzen ez dituztenak. Kartzelan sartzen ez bada, pertsona batek eguneroko bizimodua mantentzeko aukera dauka. Gainera, balizko tratamendu psikologiko batekin bateragarria izango litzateke. Birgizarteratzeko printzipioa hobeto betetzen da lanen bidez.

Nolako lanak izango lirateke?

Delituarekin lotutako lanak izaten dira. Adibidez, zirkulazio delituetan zigortutako pertsona Gurutze Gorrian edo DYAn jardungo litzateke, egindako delituaren esparru berean. Zortzi orduko lanaldiak izan daitezkeen arren, eguneko bi orduz egin ohi dira, hain zuzen, eguneroko bizimoduarekin jarraitu ahal izateko.

Zeren araberakoa da gizartearen aldeko lanen aplikazioa? Delituaren, zigorraren luzeraren ala pertsonaren izaeraren araberakoa?

Delituaren araberakoa da. Batez ere bi delitu motatan agertzen da [Espainiako] Zigor Kodean: gene-



IMANOL OTEGI / ARGAZKI/PRESS

ro delituak eta zirkulazio delituak. Bestalde, espetxearen ordezkoa izan daiteke, zigorra bi urtekoa edo gutxiagokoa denean; baina, hori oso gutxitan aplikatzen da.

Ekoki ikusten duzu genero indarkeria delituetan aplikatzea, gizon askok bikotekidearekiko urrutze agindua betetzen ez dutenean, esaterako?

Ezin da emakumeen aurkako indarkeria delitu guztietan aplikatu; bortxaketa kasuak kanpoan daude, eta tratatu txarretan lesioak baldin badaude ere ez da ezartzen. Baina, nire ustez, ez da zigor proposena, delituaren eta lanaren artean lotura dagoelako eta ondorio txarrak izan ditzakeelako emakumeengan. Lehenik eta behin, ziurtatu beharko litzateke gizonak bere jokabidea aldatu duela, genero indarkeriaren biktimen laguntzarako elkarte batean jardun ahal izateko.

Gizartearen aldeko lanak gazteei ezarri izan zaizkie batez ere, lapurreta kasuetan, adibidez.

Bai, 18 urte azpikoei zigor mota hau aplikatzen zaie, eta gazteekin arrakasta izan duenez, helduen Zigor Kodea zabaldu da. Lapurretak eta delitu ekonomikoak dira, nire ustez, horrelakoak aplikatzeko aproposenak. Izan ere, gizartearentzat ez dira

«Birgizarteratzeko printzipioa hobeto betetzen da lanen bidez»

«Zoritxarrez, egungo politika kriminalak espetxearen aldeko apustua egiten du»

horren delitu larriak; gainera, kasu horietan beste zigor mota bat eskatzeko joera dagoela uste dut. Araza da delitu horientatik hiru urteko zigorra aurrez ikusten duela Zigor Kodeak, hau da, bi urteko mugatik gorakoa. Beraz, luzera horrekin ezin dira

gizartearen aldeko lanak ezarri espetxearen ordez.

Gero eta epai gehiagok egiten dute lanen alde, baina neurriok martxan jartzeko sare sozialik ez dagoela salatu duzue.

Sare soziala, berez, badago, elkarre asko dagoelako. Eta gazteekin ondo funtzionatzen badu, zergatik ez helduekin? Nik uste dut erakunde horiek prest egongo liratekeela jende hori hartzeko, baina administrazioek lan gehiago egin behar dute elkarteak bilatzen. Kataluniako egoera ere aztertu dut, eta han erakundeen eta administrazioen arteko elkarlan handiagoa dago.

Horretarako ezal da espetxeen inguruko ikuspegia aldatu behar? Zigor-tzera baino gehiago, birgizarteratzera zuzendu behar ote lirateke neurriak?

Bai, hala da. Zoritxarrez, gaur egungo politika kriminalak espetxearen aldeko apustua egiten du, eta hor ere badago beste oztopo bat ordezkoak aplikatu ahal izateko.

esan ahala

Ramon Etxezarreta

BERRIA TELEBISTA

Hizkuntza Politikarako sailburuaren elkarriketa

www.berria.info

AUKERA EZAZU BIZI EUSKARAZ **berria**